



## Convention cadre OPLB - Ikas Bi

### EEP - Ikas Bi hitzarmen-markoa

#### Contexte :

Dans le cadre du Fonds commun de coopération, l'Office Public de la Langue Basque et le Gouvernement de la Communauté Autonome d'Euskadi apportent chaque année un appui financier à l'association de parents d'élèves de l'enseignement public bilingue Ikas Bi, sur la base d'une convention annuelle de partenariat.

En 2014, des travaux ont été conduits avec les responsables de l'association Ikas Bi, pour inscrire ce partenariat dans un cadre pluriannuel formalisé par une convention cadre.

Ces travaux ont amené la rédaction partagée d'une convention cadre OPLB - Ikas Bi jointe en annexe au présent rapport.

#### Présentation du projet :

Par le biais d'une convention cadre, l'OPLB et Ikas Bi réaffirment le caractère stratégique de la complémentarité entre la politique menée par les pouvoirs publics regroupés au sein de l'OPLB en faveur du développement de l'enseignement du basque dans l'enseignement public et l'action permanente de terrain menée par l'association Ikas Bi au sein des écoles et des établissements publics du Pays Basque.

La politique de développement de l'offre d'enseignement bilingue et de structuration qualitative de l'organisation de cet enseignement portée par l'OPLB, doit en effet pouvoir être relayée par une action permanente de promotion et de suivi de l'enseignement bilingue au plus près de la vie et du fonctionnement quotidiens des écoles, afin notamment que le plus grand nombre de familles fasse le choix pour leurs enfants d'une scolarisation en enseignement bilingue, que ce choix se maintienne de la maternelle jusqu'au lycée, et que l'enseignement dispensé garantisse l'acquisition de la pleine maîtrise des deux langues basque et française en fin de cursus.

Cette complémentarité s'appuie sur un partenariat à deux niveaux dont le contenu est détaillé dans la convention cadre :

- Ikas Bi partenaire de l'OPLB dans les actions de ce dernier en matière d'enseignement du basque et en basque dans l'enseignement public ;

#### Testuingurua :

Lankidetzarako fondoaren kariatara, Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzak, irakaskuntza publiko elebiduneko Ikas Bi buraso elkarteari urte guziez diru-laguntza bat ekartzen diote, urteko lankidetzaz hitzarmen baten oinarrian.

2014. urtean, lanak burutu dira Ikas Bi elkarteko arduradunekin, partaidetza hori urte anitzeko koadro batean kokatzeko, hitzarmen-marko batean formalizatua.

Lan horiek, EEP - Ikas Biren arteko hitzarmen-marko baten idazketa partekatua erakarri dute, eranskinean jarria dena.

#### Proiektuaren aurkezpena :

Hitzarmen-marko berri baten bidez, EEPk eta Ikas Bik izaera estrategikoa duten eramandako lanen osagarritasuna berresten dute, batetik EEPren baitan bilduak diren botere publikoek eraman euskararen irakaskuntzaren garatzearen aldeko politika dela, eta bestetik Ikas Bi elkarteak Euskal Herriko eskola eta ikastetxe publikoetan eramaiten duen uneoroko lana dela.

Irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garatze politikak eta EEPk eramaiten duen irakaskuntza horren antolaketaren egituraketa kualitatiboak, irakaskuntza elebidunaren promozio jarduera iraunkorraz eta jarraipenaz ordezkaturia izan behar lukete, eskoletako bizirik eta eguneroko funtzionamendutik hurbilenean, batez ere familien gehiengoak beraien haurrak irakaskuntza elebidunean eskolatzearen hautua egin dezan, hautu hori ama eskolatik lizeoraino mantendu dadin eta eskainia zaien irakaskuntzak ibilbide bukaeran euskara eta frantsesaren jabetasun osoa berma diezaien.

Osagarritasun hori bi mailatako partaidetzan oinarritzen da. Bi maila horien edukia hitzarmen-markoan zehaztua da :

- Ikas Bi EEPren partaide, azken honek irakaskuntza publikoaren alorrean eramaten duen euskarazko eta euskararen irakaskuntza jarduerari dagokienez ;

- L'OPLB partenaire d'Ikas Bi dans les activités associatives développées par Ikas Bi.
- EEP Ikas Bi-ren partaide, Ikas Bi-k elkarte modura burututako jardueri dagokienez.

**Délibération :**

Compte tenu de ces éléments, l'Assemblée générale de l'OPLB décide :

- d'approuver la convention cadre OPLB - Ikas Bi jointe en annexe ;
- d'autoriser le Président de l'OPLB à signer cette convention.

**Adopté à l'unanimité.**

**Erabakia :**

Lehenago aurkeztu elementuak kontuan harturik, EEPren Biltzar nagusiak erabakitzen du :

- Eranskinetan txertatua den EEP - Ikas Bi hitzarmen-markoa adostea ;
- EEPren Lehendakariari hitzarmen horren izenpetzeko baimenaren ematea.

**Aho batez onartua.**

## CONVENTION-CADRE

•

## HITZARMEN-MARKOA

Entre les soussignés :

**Office Public de la Langue Basque** (ci-après désigné « OPLB »), ayant son siège au 2, allée des platanes - 64100 Bayonne, représenté par son Président M. **François MAÏTIA**,

Et

**Ikas Bi**, ayant son siège à BP 221 - 64502 Saint-Jean-de-Luz (tél. : 05.59.26.60.60; courriel : [ikas-bi@wanadoo.fr](mailto:ikas-bi@wanadoo.fr)), représenté par son Président, M. **Thierry DELOBEL**,

Conviennent du dispositif suivant :

Paraphe - Hizkiak  
Office Public de la Langue Basque - Euskararen Erakunde Publikoa  
François MAÏTIA

Honako hauek izenpeturik :

**Euskararen Erakunde Publikoa** (aurrerantzean « EEP » izendatuko dena) zeinek egoitza Platanondoen etorbidea, 2 - 64100 Baionan duen, **François MAÏTIA** Lehendakari J.k ordezkatuak,

Eta

**Ikas Bi**, zeinek egoitza PK 221 - 64502 Donibane Lohizunen duen (tel.: 05.59.26.60.60 ; mezuela : [ikas-bi@wanadoo.fr](mailto:ikas-bi@wanadoo.fr)), Lehendakari den **Thierry DELOBEL** J.k ordezkatuak,

Honako hau onesten dute :

Paraphe - Hizkiak  
Ikas Bi  
Thierry DELOBEL

## Préambule

Par la présente convention, l'OPLB et Ikas Bi tiennent à réaffirmer le caractère stratégique de la complémentarité entre la politique menée par les pouvoirs publics regroupés au sein de l'OPLB en faveur du développement de l'enseignement du basque dans l'enseignement public et l'action permanente de terrain menée par l'association Ikas Bi au sein des écoles et des établissements publics du Pays Basque.

La politique de développement de l'offre d'enseignement bilingue et de structuration qualitative de l'organisation de cet enseignement portée par l'OPLB, doit en effet pouvoir être relayée par une action permanente de promotion et de suivi de l'enseignement bilingue au plus près de la vie et du fonctionnement quotidiens des écoles, afin notamment que le plus grand nombre de familles fasse le choix pour leurs enfants d'une scolarisation en enseignement bilingue, que ce choix se maintienne de la maternelle jusqu'au lycée, et que l'enseignement dispensé garantisse l'acquisition de la pleine maîtrise des deux langues basque et française en fin de cursus.

Cette complémentarité s'appuie sur un partenariat à deux niveaux que l'OPLB et Ikas Bi souhaitent consolider :

- Ikas Bi partenaire de l'OPLB dans les actions de ce dernier en matière d'enseignement du basque et en basque dans l'enseignement public,
- L'OPLB partenaire d'Ikas Bi dans les activités associatives développées par Ikas Bi.

## Sarrera

Hitzarmen honen bidez, EEPk eta Ikas Bik izaera estrategikoa duten eramandako lanen osagarritasuna berretsi nahi dute, batetik EEPren baitan bilduak diren botere publikoek eraman euskararen irakaskuntzaren garatzearen aldeko politika dela, eta bestetik Ikas Bi elkarteak Euskal Herriko eskola eta ikastetxe publikoetan eramaiten duen uneoroko lana dela.

Irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren garatzeko eta irakaskuntza horren antolaketa kualitatiboa egituratzeko EEPk eraman politikak, lagundua izan behar du eskolen eguneroko bizitzaz eta funtzionamenduaz ahal bezain hurbil eraman daitekeen irakaskuntza elebidunaren promozio eta jarraipen lan iraunkor baten bidez, bereziki familien gehiengoak beraien haurrak irakaskuntza elebidunean eskolatzearen hautua egin dezan, hautu hori ama eskolatik lizeoraino mantendu dadin eta eskainia den irakaskuntzak ibilbide bukaeran euskara eta frantsesaren jabetasun osoa berma dezan.

Osagarritasun hori EEPk eta Ikas Bik sendotu nahi duten bi mailatako partaidetzan oinarritzen da :

- Ikas Bi EEPren partaide, azken honek irakaskuntza publikoan euskarazko eta euskararen irakaskuntza sailean eraman jardueretan,
- EEP Ikas Bi-ren partaide, Ikas Bi-k elkarte modura burututako jardueretan.

**I. Ikas Bi partenaire de l'OPLB dans la définition et la mise en œuvre des orientations en matière d'enseignement du basque et en basque dans les écoles publiques :**

- A) Le développement de ce partenariat nécessitera le respect d'un certain nombre de principes, à savoir :
- **Le respect du rôle de l'OPLB en matière d'enseignement de et en langue basque :**
    - L'objet statutaire de l'OPLB : l'OPLB a pour objet de « concevoir, définir et mettre en œuvre une politique linguistique publique et concertée en faveur de la langue basque ».
    - La convention cadre EN/CG relative à la concertation portant sur le développement et la structuration de l'offre d'enseignement de et en langues régionales basque et occitane :
      - pour la mise en œuvre de cette convention, s'agissant de la langue basque, l'OPLB est la structure opérationnelle chargée d'animer le dispositif commun de concertation,
      - en tant que structure opérationnelle, l'OPLB est chargé (Article 6) :
        - 6.1 – de diffuser toute information sur l'offre existante d'enseignement en langue basque,
        - 6.2 – d'organiser des opérations de sensibilisation et de promotion sur l'enseignement de et en langue basque,
        - 6.3 – d'organiser des enquêtes destinées à l'analyse de la demande d'enseignement de et en langue basque,
        - 6.4 – de concevoir et de proposer la mise en place d'une programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement assurant la

**I. Ikas Bi EEPren partaide, eskola publikoetako euskarazko eta euskararen irakaskuntzari dagozkien norabideen definitze eta bideratze lanetan :**

- A) Partaidetza horren garatzeak hainbat printzipioren errespetua behartuko du, hara nola :
- **Euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren alorrean, EEPren eginkizunen errespetua :**
    - EEPren estatuetan zehaztua den EEPren eginkizuna : « euskararen aldeko hizkuntza politika publiko eta hitzartu baten asmatzea, zehaztea eta obratzea ».
    - HN/KN hitzarmen-markoa, bi partaideen arteko elkarraditzea zehazten duena, euskaraz edo okzitanieraz burutu irakaskuntza eskaintzaren garapenaz eta egituraketaz :
      - hitzarmen horren obratzeko, euskarari dagokionez, EEP da elkarraditze dispositibo komunaren animatzeko ardura duen egitura obratzailea,
      - egitura obratzaile gisa, EEPren zereginetan da (6. artikulua) :
        - 6.1 – euskarazko irakaskuntzaren eskaintzari dagokion informazioaren hedatzea,
        - 6.2 – euskararen eta euskarazko irakaskuntzari buruzko sentsibilizazio eta sustapen ekintzen antolatzea,
        - 6.3 – euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaeraren azterketari zuzendu inkestean antolatzea,
        - 6.4 – irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazio baten definitzea eta proposatzea, irakaskuntza ibilbidean zehar,

cohérence, la complétude et la continuité des cursus tout au long de la scolarité,

6.5 – de proposer, sur ces bases, une carte des enseignements de et en langue basque déclinant la programmation pluriannuelle : détermination du nombre de sites d'enseignement et choix de leur implantation,

6.6 – de préparer l'ouverture des sites prévus dans la programmation pluriannuelle par un travail de concertation avec les collectivités locales concernées par les investissements immobiliers et mobiliers à réaliser, l'organisation des transports d'élèves,

6.7 – de concevoir et de proposer des orientations relatives à l'organisation qualitative des enseignements, dans le but de répondre aux objectifs d'acquisition des compétences en langues régionales,

6.8 – de proposer des mesures d'adaptation du cadre réglementaire et administratif régissant l'enseignement de et en langues régionales, dans l'objectif de mieux prendre en compte la réalité de cet enseignement,

6.9 – de proposer des mesures et dispositifs d'appui à la production de matériel pédagogique,

6.10 – de proposer des mesures et dispositifs d'appui à l'usage périscolaire de la langue basque,

6.11 – d'établir un cadre de concertation avec les associations œuvrant dans le domaine de la langue basque, tout particulièrement les associations de parents d'élèves des trois filières d'enseignement bilingue.

- La convention particulière EN/CG relative à la concertation portant sur le

irakaskuntzaren koherentzia, osotasuna eta jarraipena bermatzen duena,

6.5 – horretan oinarrituz, urte anitzeko programazioa deklinatzen duen euskararen eta euskarazko irakaskuntzen karta baten proposatzea : irakaskuntza gunekopuruaren eta hauen kokatzearen finkatzea,

6.6 – urte anitzeko programazioan aurreikusitako diren irakaskuntza guneen irekitzearen prestatzea, egoitzei eta ontasun higigarriari lotu inbertsioen ardura, eta ikasleek garraiatzearen antolaketaren ardura duten tokiko elkargoekin elkarlanean,

6.7 – irakaskuntzen antolaketa kualitatiboari buruzko norabideen definitzea eta hauen proposatzea, eskualdeko hizkuntzen jabetza helburuei erantzuteko gisan,

6.8 – eskualdeko hizkuntzen eta eskualdeko hizkuntzetako irakaskuntza antolatzen duen esparru administratiboaren egokitze neurrien proposatzea, irakaskuntza horren errealitatea hobeki kontuan hartzeko,

6.9 – ikasmaterialaren ekoizpenaren sustatzeko neurrien eta dispositiboaren proposatzea,

6.10 – eskolaz kanpoko euskararen erabilera sustatzeko neurri eta dispositiboaren proposatzea,

6.11 – euskararen alorrean lan egiten duten elkarteekin elkarraditze esparru baten finkatzea, irakaskuntza elebidunean lanean diharduten hiru ikasle burasoko elkarteekin batez ere.

- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapenari dagokion

développement et la structuration de l'offre d'enseignement du basque et en basque :

- Le dispositif de concertation relatif à l'enseignement s'inscrit dans et en cohérence avec la politique concertée globale portée et conduite en faveur de la langue basque par l'Etat et les collectivités locales, et se traduisant par l'adoption en décembre 2006 du Projet de Politique Linguistique « *Un objectif central : des locuteurs complets ; un cœur de cible : les jeunes générations* ».
  - Les signataires conviennent de confier à l'OPLB la mission d'organiser en son sein le mode opératoire particulier permettant d'assurer (article 4) :
    - le caractère permanent de la concertation prévue à l'article 5 de la convention cadre EN/CG,
    - la cohérence et la complémentarité entre les préconisations et orientations portant sur l'offre d'enseignement adoptées par le dispositif particulier de concertation et celles portant sur les autres thématiques de la politique linguistique globale menée en faveur de la langue basque adoptées par les partenaires de l'Office Public,
  - Les modalités de mise en œuvre, de suivi et d'évaluation de la convention particulière sont définies par l'article 6 de la convention cadre. L'Office Public de la Langue Basque est chargé de préparer, avec les services de l'Education nationale et du Conseil général des Pyrénées-Atlantiques, les réunions du Comité de coordination prévues dans la convention cadre.
- Le Projet de Politique Linguistique :
- L'enseignement du basque et en

Hezkunde Nazionala (HN) / Kontseilu Nagusiaren (KN) arteko elkarraditzeari lotu hitzarmen berezia :

- Irakaskuntzari dagokion elkarraditze dispositiboa, Estatuak eta tokiko elkargoek daramaten euskararen aldeko politika orokorrean sartzen da eta harekin koherentzian jartzen, politika hori 2006. urteko abenduan adostutako eta « *Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun* » izenburutzat hartzen duen Hizkuntza Politika Proiektuan zehaztua da.
- Izenpetzaileek, molde berezian antolatzearen eginkizuna EEPren esku uztea adosten dute, honako hauen segurtatzeko (4. artikulua) :
  - HN/KNren arteko hitzarmen-markoaren 5. artikuluan finkatu elkarraditzearen izaera iraunkorra,
  - koherentzia eta osagarritasuna ondoko hauen artean : elkarraditze dispositibo berezia adostu gomendio eta orientabideak alde batetik, eta Euskararen Erakunde Publikoaren partaideek adostu euskararen aldeko hizkuntza politika orokorrari buruzko gomendio eta orientabideak beste aldetik,
- Hitzarmen berezia obratzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko moldeak hitzarmen-markoaren 6. artikuluan definituak dira. Euskararen Erakunde Publikoari, Hezkunde Nazionalaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren zerbitzuekin batean, hitzarmen-markoan aurreikusia den Jarraipen batzordearen elkarretaratzeen presatzearen ardura ematen zaio.

▪ Hizkuntza Politika Proiektua :

- Euskararen eta euskarazko

basque s'inscrit, avec d'autres enjeux (médias, petite enfance, usage social de la langue, sensibilisation,...), au cœur du projet de politique linguistique, car il constitue le vecteur majeur de l'apprentissage de la langue par les jeunes générations,

- Pour remplir sa mission, l'Office Public a défini successivement deux documents d'orientation de la politique à mener dans le domaine de l'enseignement en langue basque, adoptés par le Conseil d'Administration en présence du Recteur de l'Académie de Bordeaux :
  - le Volet 1 de la programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement du basque et en basque, adopté par le CA de l'OPLB le 20 décembre 2005, visant le développement et la structuration territoriale de l'offre d'enseignement en langue basque,
  - le Volet 2 de la programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement du basque et en basque, adopté par le CA de l'OPLB le 30 janvier 2008, visant la structuration qualitative des enseignements en langue basque.

- **Le respect de la libre administration de l'opérateur associatif Ikas Bi dans la définition de ses valeurs et ses principes, et leur communication,** y compris dans l'expression publique d'éventuels désaccords.

- L'objectif pédagogique de l'enseignement public bilingue est un apprentissage dans les deux langues, en basque et en français, ouvert à tous. Ikas Bi est attaché aux valeurs de cet enseignement permettant à des enfants d'horizons différents de se côtoyer et de bénéficier d'une même chance, au nom du principe de la scolarisation pour tous,

irakaskuntza, hizkuntza politika proiektuaren baitan bete-betean sartzen da, beste erronkekin batean (hedabideak, lehen haurtzaroa, euskararen erabilera soziala, sentsibilizazioa...), belaunaldi gazteak euskararen ikasteko bidean eragile nagusia delakoan,

- Bere eginkizunaren betetzeko, Erakunde Publikoak, euskararen irakaskuntzaren alorrean eraman beharreko politika finkatzen duten bi dokumentu bata bestearen ondotik definitu ditu, Administrazio kontseiluak adostu dituenak, Bordeleko Akademiako Errektorea bertaraturik :
  - Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazioaren 1. atala, 2005eko abenduaren 20eko EEPren AK-k adosturik, zeinek xedetzat dituen euskararen irakaskuntza eskaintzaren garapena eta lurralde mailako egituraketa,
  - Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazioaren 2. atala, 2008ko urtarrilaren 30eko AK-k adosturik, zeinek xedetzat duen euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa.

- **Ikas Bi elkarte-eragilearen administrazio askearen errespetua bere printzipio eta baloreen definizioan eta komunikazioan,** publikoki adieraziko lirakekeen desadostasunak barne.

- Irakaskuntza publiko elebidunaren helburu pedagogikoa da bi hizkuntzetan ikastea, euskaraz eta frantsesez, orori irekia egonez. Ikas Bi, ingurumen ezberdinetako haurrei elkarrekin ibiltzeko eta xantza bera ukaiteko aukera eskaintzen duen irakaskuntza horren baloreei atxikia da, edonor eskolatzearen printzipioaren izenean,



- Ikas Bi reste très attaché à la non-hiérarchisation entre les langues au sein de l'école : les deux langues de scolarisation, française et basque, se construisent l'une avec l'autre. Le risque majeur, l'écueil à éviter, étant de donner un statut différent à l'une ou à l'autre et de créer une diglossie entre les langues au sein de l'école,
- Groupement historique de parents, d'anciens parents, d'enseignants depuis près de 30 ans, Ikas Bi développe toujours les deux axes de son objet et projet associatif, permettant de développer l'enseignement bilingue public :
  - 1- Promotion permanente du bilinguisme français-basque et de la langue et culture basques dans l'enseignement public, par l'information et la sensibilisation des familles, des pouvoirs publics et de la société, au service du développement des sections bilingues existantes et de l'ouverture de nouvelles sections bilingues,
  - 2- Relais des parents d'élèves et écoles, afin de favoriser l'usage de l'euskara et la continuité de cet enseignement, notamment par la défense de l'enseignement bilingue, de son cadre légal, des écoles et des postes d'enseignants.

Ikas Bi intervient auprès des parents et des acteurs de l'enseignement : Éducation Nationale, fédérations de parents, enseignants, syndicats, collectivités locales,

- Dans le cadre de cette action historique et permanente pour la promotion et le développement de l'enseignement public bilingue, Ikas Bi a engagé depuis sa création des liens privilégiés avec diverses structures associatives ou fédératives de l'enseignement :
  - 1- Ikas Bi est membre de la Fédération pour les Langues régionales dans l'enseignement public FLAREP et, à ce titre, participe à la promotion et à

- Ikas Bi, eskolaren baitan bi hizkuntzen arteko hierarkia ezari biziki atxikia da : eskolatzeko bi hizkuntzak, euskara eta frantsesa, bata bestearekin eraikitzen dira. Arrisku nagusia edo saihestu beharreko oztopoa, hizkuntza bati edo besteari estatutu ezberdin baten ematea litzateke eta eskolaren baitan bi hizkuntzen arteko diglosia sortzea,
- Azken 30 urte hauetako buraso, buraso ohi eta irakasleen elkargune historikoa, Ikas Bik bere elkarte proiektuaren bi ardatzak betiere garatzen ditu, irakaskuntza publiko elebiduna garatzeko gisan :
  - 1- Euskara-frantsesa elebitasunaren, euskararen eta euskal kulturaren sustapen iraunkorra irakaskuntza publikoan, familiak, botere publikoak eta gizartea sentsibilizatuz eta informatuz, jadanik irekiak diren sail elebidunen garatzeko eta sail elebidun berri batzuen irekitzeko helburuarekin,
  - 2- Eskolen eta ikasleen burasoen ordezkari izanez, euskararen erabileraren eta irakaskuntza horren jarraipena laguntzeko, bereziki irakaskuntza elebiduna, bere legezko esparrua, eskolak eta irakasle postuak defendituz.

Ikas Bik burasoei eta irakaskuntzako eragileei zuzentzen zaie : Hezkunde Nazionala, buraso federakuntza, irakasleak, sindikatuak, tokian tokiko elkargoak,

- Irakaskuntza publiko elebidunaren sustapenaren eta garapenaren aldeko jarduera historiko eta iraunkor honen kariatara, Ikas Bik sortuz gozotik irakaskuntzako elkarteekin edo federazioekin lotura bereziak sortu ditu :
  - 1- Ikas Bi FLAREPeko kide da (Fédération pour les Langues régionales dans l'enseignement public), eta, kide gisa, Frantziako eskualde hizkuntzen

- la défense de l'enseignement des langues régionales de France,
- 2- Ikas Bi est partenaire de la confédération des parents du public dans la Communauté autonome d'Euskadi, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte EHIGE, afin de valoriser l'apprentissage et l'usage de l'euskara au travers de projets transfrontaliers notamment,
  - 3- Ikas Bi est partenaire de la principale fédération de parents de l'enseignement public, la Fédération des Conseils de Parents d'Élèves FCPE64, pour une représentativité électorale partagée au sein des conseils d'établissements et dans les instances paritaires de l'Éducation Nationale comme le CDEN,
  - 4- Ikas Bi maintient aussi une relation de confiance avec les collectivités locales, en particulier les municipalités, véritables partenaires de terrain, notamment pour la défense des écoles publiques et leur maintien dans les quartiers et en milieu rural,
  - 5- Enfin, Ikas Bi développe des relations constantes avec l'Éducation Nationale, le projet associatif permanent d'Ikas Bi étant en concordance avec les dispositions de la nouvelle Loi d'orientation et de programmation pour la refondation de l'école de la République du 9 juillet 2013 qui précise que :
    - l'enseignement bilingue en français et langue régionale doit être favorisé,
    - les familles doivent être informées,
    - les langues régionales favorisent l'apprentissage des langues vivantes.
- L'objet associatif d'Ikas Bi apparaît en concordance avec les orientations de la politique publique linguistique élaborée dans le cadre des conventions entre
- sustapen lanetan eta defentsan parte hartzen du,
- 2- Ikas Bi Euskal Autonomia Erkidegoko EHIGERen kide da (publikoko burasoen konfederazioa den Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarte), bereziki euskararen irakaskuntza eta erabilera balioztatzeko mugaz gaindiko proiektu batzuen bitartez,
  - 3- Ikas Bi FCPE64 (Fédération des Conseils de Parents d'Élèves) irakaskuntza publikoko burasoen federakuntza nagusiaren kide da, ikastetxe kontseiluetan CDEN bezalako Hezkunde Nazionalako batzorde parekideetarako bozketa ondorengo ordezkartza partekatua izateko gisan,
  - 4- Ikas Bik tokiko elkargoekin konfiantzazko harremanak mantentzen ditu, bereziki lurraldeko zinezko partaideak diren Herriko etxeekin, baita ere eskola publikoen defentsarako eta haien mantentzeko auzoaldeetan eta baserrialdean,
  - 5- Azkenik, Ikas Bik Hezkunde Nazionalarekin harreman jarraikiak garatzen ditu, Ikas Biren elkarte proiektu iraunkorra 2013ko uztailaren 9ko Errepublikako eskolaren birsortzearen orientabide eta programazio lege berriaren neurriekin bat datorrelako, honako hauek zehazten dituela :
    - frantsesez eta eskualdeetako hizkuntzetan eman irakaskuntzak hobetsia izan behar du,
    - familiek informatuak izan behar dute,
    - eskualdeko hizkuntzek beste hizkuntzen ikasketa errazten dute.
- Ikas Biren elkartearen helburuak Estatuaren eta Kontseilu Nagusiaren arteko hitzarmenen kariatara definitu hizkuntza politika publikoaren

l'État et le Conseil Général, et dont la coordination est confiée au GIP Office Public de la Langue Basque.

orientabideekin bat egiten du, horren koordinazioa Euskararen Erakunde Publikoa IPEn esku utzia delarik.

B) Les objectifs opérationnels de ce partenariat :

- Une concertation permanente : Ikas Bi fait part de son avis sur les initiatives et les choix que l'OPLB est amené à faire dans le cadre de ses prérogatives :
  - dans la définition de la politique
  - dans la mise en œuvre
- La participation active d'Ikas Bi :
  - aux réunions d'information dans les écoles (notamment dans le cadre des projets d'ouverture de nouvelles sections),
  - aux campagnes de sensibilisation auprès des familles, des enseignants,
  - aux actions liées au volet qualitatif de l'enseignement (expérimentations, quotités horaires collèges/lycées, évaluations...),
  - à l'accompagnement des projets liés à la valorisation de l'usage du basque en dehors du temps scolaire.
- La reconnaissance et sollicitation par l'OPLB de l'expérience d'Ikas Bi, concernant :
  - le maillage du territoire et la présence de l'enseignement bilingue sur la zone stratégique du BAB,
  - la stratégie à privilégier pour l'enseignement primaire public :
    - dans l'accompagnement à l'expression d'une demande,
    - dans la formalisation d'une demande exprimée,
    - dans le développement de l'immersion en sections maternelles,
    - dans la mise en œuvre des pratiques « un maître - deux langues » pouvant faciliter l'ouverture de sections ou le maintien d'écoles en milieu rural,
    - dans le soutien à la continuité de l'enseignement,
    - dans la mise en œuvre d'actions de

B) Partaidetza honen helburu zehatzak :

- Elkarraditze iraunkorra : Ikas Bik bere iritzia jakinarazten du, EEPk bere eginkizunen kariatara har ditzazkeen inizatiba eta hautuei buruz :
  - politika definitzeko unean
  - politika obratzean
- Ikas Biren parte hartze aktiboa :
  - eskoletako informazio bilkuretan (sail berrien irekitzeen kariatara besteak beste,
  - familiei eta irakasleei zuzendu sentsibilizatze kanpainetan,
  - irakaskuntza kualitatiboaren atalari lotu ekintzetan (esperimentazioak, kolegio eta lizeotako oren kopuruak, ebaluaketak...),
  - eskolaz kanpoko uneetan euskararen erabileraren balioztatze proiektuen laguntzan.
- EEPren partetik, Ikas Biren esperientziaren aitortza eta honi deitzea, honakoei begira :
  - lurraldearen estaltzea eta irakaskuntza elebidunaren presentzia BABko gune estrategikoan,
  - lehen mailako irakaskuntza publikoan hobetsi beharreko estrategia :
    - eskaera baten adierazpena laguntzeko,
    - Adierazia den eskaera bat formalizatzeko,
    - Ama eskoletan murgiltze eredua garatzeko,
    - « irakasle bat - bi hizkuntza » praktikak plantan jartzeko, sail berrien irekitze edo baserri guneetako eskolen mantentzea errazteko gisan,
    - Irakaskuntzaren jarraipena sustatzeko,
    - Irakaskuntza publikoari bereziki

sensibilisation spécifiques à l'enseignement public ou associant l'ensemble des filières d'enseignement.

- la stratégie à privilégier pour l'enseignement secondaire public :
  - dans la consolidation des conditions d'enseignement,
  - dans la reconnaissance de l'enseignement bilingue au-delà d'un simple enseignement optionnel,
  - dans la construction de passerelles entre l'enseignement bilingue et les sections internationales,
  - dans la mise en œuvre d'une parité horaire,
  - dans le développement de l'enseignement professionnel.

○ Une méthode de travail partagée :

- au service de l'efficacité,
- s'appliquant de manière différenciée pour les deux axes de développement de l'enseignement public bilingue : renforcement du maillage par l'ouverture de nouvelles sections ; continuité et élargissement de cet enseignement du primaire au secondaire,
- veillant à répondre à des contextes toujours uniques, qui réclament une souplesse afin d'éviter des échecs et de limiter les risques de refus ou de résistances.

## II. L'OPLB partenaire d'Ikas Bi dans les activités associatives développées par Ikas Bi

Au-delà de l'expérience que pourra apporter Ikas Bi auprès de l'OPLB, dans la définition des orientations en matière d'enseignement du basque et en basque dans les écoles publiques, Ikas Bi développe ses propres activités associatives et participe, par les services qu'il propose aux parents d'élèves, aux enseignants et aux écoles publiques, à la mise en œuvre d'une politique linguistique, tant au niveau local qu'au niveau national pour les langues régionales.

zuzendu sentsibilizazio ekintzak obratzeko edo irakaskuntza sare ezberdinak bilduko dituen bestelako jarduerak antolatzeko.

- 2. mailako irakaskuntza publikoan hobetsi beharreko estrategia :
  - irakaskuntza baldintzen egongortzeko,
  - irakaskuntza elebidunaren ezagutzeko, hautuzko ikasgairen irakaskuntzaz haratago,
  - irakaskuntza elebidunaren eta nazioarteko sailen artean zubiak eraikitzeko,
  - orenen parekotasuna indarrean jartzeko,
  - irakaskuntza profesionalaren garatzeko.

○ Lan metodo partekatu bat :

- eraginkortasunaren zerbitzuko,
- irakaskuntza publiko elebidunaren garapenerako 2 ardatzentzat ezberdinki burutua : lurraldearen estaltzearen azkartzea sail berriak irekiz ; irakaskuntza horren jarraipena eta zabaltzea sustatuz lehen mailatik bigarren mailara,
- beti bereziak izaten diren testuinguru ezberdinetan molde egokian jokatzeko ahaleginduz, malgutasuna eskatzen baitute hutsegiteak saihesteko eta ukatze eta erresistentzia arriskuak mugatzeko.

## II. EEP Ikas Biren partaide, Ikas Bi burutu elkarte jardueretan

Eskola publikoetan euskararen eta euskarazko irakaskuntza orientabideen definitze lanetan, Ikas Bi elkarteak EEPri ekartzen ahalko dion esperientziak haratago, Ikas Bik bere elkarte jarduerak burutzen ditu eta ikasleen burasoei, irakasleei eta eskola publikoari proposatzen dizkien zerbitzuei esker, hizkuntza politika baten obratzean parte hartzen du eskualde hizkuntzentzat, tokiko mailan nazio mailan bezala.

A ce titre, l'OPLB, dans le cadre des engagements budgétaires qu'il décide chaque année, peut accompagner les activités associatives développées par Ikas Bi.

Les actions menées par Ikas Bi s'articulent autour de la promotion, la sensibilisation et l'usage du bilinguisme français-basque à l'école publique avec pour orientations principales :

- Promouvoir par tout moyen technique l'enseignement bilingue, la richesse pédagogique de l'enseignement public bilingue en français et en basque, comme source de multilinguisme, de diversité linguistique et socioculturelle. Ceci pour permettre à tous d'accéder à un enseignement porteur de développements cognitifs, culturels, sociaux et maintenant aussi professionnels,
- Sensibiliser les parents, les enseignants, les pouvoirs publics, la population aux bienfaits de l'enseignement bilingue, notamment par la valorisation de la loi d'orientation et de programmation pour la refondation de l'École de la République du 8 juillet 2013, portant aussi sur les langues de France. Pour cela, Ikas-Bi renforcera ses outils de communication basés sur les réunions, rencontres, conférences, fête, etc...
- Favoriser la continuité de l'enseignement en s'assurant de la qualité de l'enseignement bilingue, ceci par la défense des conditions d'enseignement et des postes. Défendre le principe de proximité de l'enseignement bilingue, avec une attention particulière à la préservation des sites scolaires ruraux et de quartiers urbains. Permettre l'accessibilité de cet enseignement à tous,
- Soutenir l'usage de l'euskara dans la cadre scolaire et familial par l'organisation d'une fête de l'école publique bilingue tous les deux ans, accompagnée d'une action forte de communication. La fête des écoles publiques - outre une action spécifique menée le jour même pour l'usage de la

Gisa horretan, EEPk, urte guzietz erabakitzen dituen diru-laguntza esleipenen kariatara, Ikas Bik burutzen dituen elkarte jarduerak laguntzen ahal ditu.

Ikas Bik eramaten dituen jarduerak, eskola publikoan euskara-frantsesa elebitasunaren sustapena, sentsibilizazioa eta erabilera dute helburu, eta honako orientabide nagusien inguruan antolatzen dira :

- Baliabide tekniko guzietz bidez, irakaskuntza elebidunaren sustatzea, eta frantseseko eta euskarazko irakaskuntza publiko elebidunaren aberastasun pedagogikoa, eleaniztasun iturri gisa, hizkuntza aniztasun eta aniztasun soziokultural iturri gisa. Eta hau garapen kognitibo, kultural, sozial eta orain profesionala dakarren irakaskuntzaz gozatzeko aukera orori eskaintzeko gisan,
- Irakaskuntza elebidunaren onurak zein diren burasoei, irakasleei, botere publikoei eta gizarteari erakustea, bereziki 2013ko uztailaren 8ko Errepublikako eskolaren ber sortzerako orientazio eta programazioa legearen balioztatzearekin, Frantziako hizkuntzak ere aipatzen dituen. Horretarako, Ikas Bik, bilkuretan, elkarretaratzeetan, konferentzietan eta bestetan oinarrituak dituen komunikazio euskarriak azkartuko ditu,
- Irakaskuntzaren jarraipena laguntzea, irakaskuntza elebidunaren kalitatea segurtatuz, irakaskuntza baldintzen eta postuen defentsaren bidez. Irakaskuntza elebidunaren hurbiltasun printzipioa defenditzea, baserri gune eta hiriko auzoetako eskolen atxikitzeari kasu emanez bereziki. Irakaskuntza hori ororentzat eskuragarri jartzea,
- Euskararen erabilera sustatzea eskola eta familia esparruetan, eskola publikoaren besta bat bi urtetarik antolatzea, komunikazio azkar batek lagundurik. Eskola publikoen besta - egunean berean hurrek euskara balia dezaten burutu ekintza berezietaz

langue basque par les enfants - constitue également une autre action spécifique et positive de promotion, sensibilisation et de notoriété pour l'euskara et le bilinguisme dans l'enseignement, s'adressant aux familles d'enfants scolarisés ou pas, et à un large public,

- o Valoriser l'usage auprès des élèves et l'image de l'euskara auprès des familles par l'incitation des équipes pédagogiques à la mise en œuvre de projets y compris transfrontaliers visant l'usage de la langue basque par les élèves.

bestalde - euskararentzat eta irakaskuntza elebidunarentzat beste sustapen, sentsibilizazio eta ospeko ekintza berezi eta baikorra da baita ere, eskolatuak diren edo ez diren haurren familiei eta publiko zabalari zuzendua,

- o Euskararen erabilera ikasleei begira eta euskararen irudia familiei begira balioztatzea, talde pedagogikoak euskararen erabilera helburutzat duten proiektuak antola ditzaten bultzatuz, mugaz gaindikoak barne.

Fait à Bayonne, en deux exemplaires,  
le 00 gggggggg 2015.

Baionan egina, jatorrizko bi aletan,  
2015. urteko ffffffff 00n.

**L'Office Public de la Langue Basque  
Euskararen Erakunde Publikoa**

Le Président - Lehendakaria  
**François MAÏTIA**

Signature - Izenpetzea

**Ikas Bi**

Le Président - Lehendakaria  
**Thierry DELOBEL**

Signature - Izenpetzea